


III. ERANSKINA

	BILBAO EKINTZA EPEL-REN DIRULAGUNTZAK Deialdia: 2022ko ostalaritzako eta gaueko aisialdiko establezimen- duen titularrei zuzendutako laguntza- programak
-----------------------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA BILBAO EKINTZA
EPEL-REN AURREAN

..... jaunak/andreak, NAN zenbakidunak, bere izenean edo enpresaren ordezkartzan (IFK:), zeinak helbide soziala/fiskala edo lantokia Bilbon duen, helbidean (telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa:).

HONAKO HAU ADIERAZI DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

a) Deialdi honetan ezarritako betekizun guztiak betetzen ditu, eta ez du Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 24.2 artikuluan xedatutako onuradun izateko debekurik.

b) Gaur egun egunean ditu Zerga Ogasunarekin, Bilboko Udalarekin eta Gizarte Segurantzarekin dituen zerga-betebehar guztiak, eta Bilbao Ekintza EPELri hori egiaztatzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak kontsultatzeko eta biltzeko baimena ematen dio, beren-beregi aurka agertzen bada izan ezik. Horrelakorik gertatuz gero, dokumentu honen amaieran jasoko du.

c) Onuradun gisa, Bilbao Ekintzari helburu berarekin lortutako dirulaguntza guztien berri emateko konpromisoa hartzen du, bai eta deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkezteko ere, hala eskatzen diotenean.

d) Deialdi honetako 4. eta 5. apartatuetan adierazitako beharrezko baldintzak betetzen ditu. Pertsona juridikoen kasuan, beren-beregi adierazten du mikroenpresa edo enpresa txiki gisa kalifikatua izateko beharrezkoak diren baldintzak betetzen dituela.

- Lana ematea 250 pertsonari baino gutxiagori, eta, aurreko ekitaldiko abenduaren 31n, gehienez ere 50 milioi euroko urteko negozio-bolumena edukitzea, edo, gehienez ere, 43 milioi euroko urteko balantze orokorra edukitzea.
- 250 langile edo gehiago dituen eta 50 milioi euro baino gehiagoko negozio-bolumena duen enpresa batek ez izatea kapitalaren % 25eko edo gehiagoko partaidetzarik.

e) Deialdi honen esparruan aurkeztu du dirulaguntzaren eskabidea, eta, gainera, oinarrien 9. apartatuan adierazitako dokumentazioa aurkeztu du adierazpen honekin batera.

f) Baimena ematen du prozedura honetatik eratorritako jakinarazpen guztiak helbide elektronikoaren bidez egiteko.

....., 20...(e)koaren ...a

Sin.

****DATUEN BABESA**

Bilbao Ekintza EPELren Zuzendaritza Nagusiak, Bilboko Udalak erakunde honi bitarteko gisa agindutako administrazio-espeditteen kudeaketaren esparruan, datu pertsonal hauek tratatzen ditu ahalmen publikoak gauzatzeko, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearekin eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrarekin bat etorritz.

Interesdunak eskubidea du bere datuak ikusteko, zuzentzeko edo ezabatzeko, bai eta tratatzearen aurka agertzeko edo hori

mugatzeko ere. Horretarako, helbide honetara idatzi beharko du: Nafarroa kalea 5-2. solairua, 48001 Bilbo. Interesdunak, halaber, Datuak Babesteko Espainiako Agentzian erreklamatzeko eskubidea du. Informazio gehiago nahi izanez gero, idatzi helbide elektronikoa honetara: juridico@bilbaoekintza.bilbao.eus

UDALAREN EDO BESTE ADMINISTRAZIO BATEN ESKU DAUDEN DOKUMENTUAK EGIAZTATZEA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, interesdunak EZ du Bilbo Ekintza EPEL edo beste administrazio publiko baten esku dagoeneko dagoen dokumentaziorik aurkeztu behar; izan ere, EPELe egoki diren dokumentuak kontsultatu eta bilduko ditu, **salbu eta behean dagoen laukitxoan markatuz interesdunak aurkakoa adierazten badu**. Hala bada, interesdunak aurkeztu beharko du dokumentazio hori.

Honako kontsulta hauek egitearen aurka nago (Bizkaiko Foru Aldundia - Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra), honako arrazoi hauengatik:

2. orria; guztira: 2